

Etxebizitzen prezioak «amiltzea» ez du baztertzen Javier Madrazok

«Erorketa itzel baten arriskuaren» aipamenean «itzulpen akatsa» izan zela zehaztu du OCDEK

ERREDAKZIOA - DONOSTIA

Espainiako etxebizitzen merkaturan epe ertainean prezioen «bat-bateko amiltze baten arriskuaz» ohartarazten zuen herenegun OCDEren txostenak hautsak harrotu ditu higiezin merkatuko eragileen artean. OCDEk berak bere txostena zioena zehaztu nahi izan zuen atzo, «itzulpen oker bat» izan zela azalduz.

Txostenaren zati hori egin zuen Miguel Jimenez OCDEko ekonomistak esplikatu zuenez, txostenak ingelesez «bat-bateko eroriko zakarraren arriskua» aipatzen zuen. Aldiz, frantsesezko bertsioan «erorketa gogor eta itzelaz» hitz egiten zen. Jimenezen arabera, albiste agenzia

zenbaitek frantsesezko bertsioa hartu zuten aintzat gaztelerara itzultzeko. Horrez gain, zenbait hedabidek baldintzazko esaldi originalak «moldatu» zituztela ere gaineratu zuen Jimenezek. Hala ere, ekonomistaren irudiko, adierazgarria da informazio oker horrek higiezin merkatuko eragileen artean eragin zuen «urduritasuna». «Erreakzioa neurritz kanpokoia izan da, eta horrek agerian utzi du merkaturan dagoen urduritasuna», esan zuen.

Bestalde, atzo, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburu Javier Madrazok ere hizpide izan zuen OCDEren txostena. Haren ustez, «gerta liteke» etxebizitzen prezioek «eroriko itzela» jasatea. Aldi berean, OCDEren aurrei-

kuspina bere ustez «ez dela alarmista» adierazi zuen. Madrazoren aburuz, inportanteena, «finantza merkatuen gorabeheraz haratago», etxebizitzen prezioen igoera geldiaraztea da.

Adituen artean, berriz, iritzi kontrajarriak agertu ziren atzo. Vital Kutzako zuzendari nagusi Joseba Barrenak baztertu egin zuen prezioen jaitsiera zakar baten aukera. «Agerikoa da azken urteetako igoera itzelak ez direla jasangarriak. Geldotze bat gerta daiteke, baina nik ez dut ikusten prezioen erorketarik, batez ere lehen etxebizitzaren merkaturan. Bigarren etxebizitzarena beste kontu bat da», azaldu zuen Barrenak.

Aldiz, Espainiako Finka Administrazioailean Elkargo Nagusiko

presidente Manuel Robertok ziurtzat du etxebizitzen prezioetan jaitsiera bat gertatuko dela. OCDErena «ez da albiste berria», esan zuen, bere erakundean higiezin etako «burbuilaz» duela urte eta erdi hitz egin zuela gaineratuz.

Mikel Etxebarren Madrilgo Irea higiezin aholkularitza bulegoko kontseilari ordezkariak, ordea, ez du uste etxebizitzaren prezioak jaitsiko direnik. «Horretarako interes tasen bat-bateko igoera itzel bat» jazo beharko zen. «Familien ekonomiak porrot egin beharko luke, hipotekaren hilabeteko kuota ezin ordaintzeko bestekoa». Etxebarrenen ustez, interes tasak egun batetik bestera %2tik gutxienez %8ra igo beharko lukete.